**Batxilergoko Sari Bereziak 2023/2024 Premios Extraordinarios de Bachillerato**

**EZ SINATU ETA EZ JARRI IZENA / NO FIRMES NI PONGAS TU NOMBRE**

| IDENTIFIKAZIO KODEA / CÓDIGO IDENTIFICATIVO | KALIFIKAZIOA / CALIFICACIÓN |
| --- | --- |
| | |

# ARTE ESZENIKOAK II

# ARTES ESCÉNICAS II

**Baloratzeko irizpide orokorrak**

Honako hauek baloratuko dira: erantzunen zuzentasuna, azalpenaren edo/eta ekoizpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren aberastasuna eta zuzentasun linguistikoa.

**Criterios generales de valoración**

Se valorará la corrección de las respuestas, la claridad y calidad de la exposición y/o producción, la estructuración, la propiedad del vocabulario y la corrección lingüística.

**Baloratzeko irizpide espezifikoak**

- Pertsonaien ekintza dramatikoa, gatazkak eta egoerak ezagutzen ditu, eta sakondu egiten du haietan.
- Badaki interpreteak zer baliabide eta zer interpretazio-teknika dituen eskura pertsonaiak sortzeko, eta aplikatu egiten ditu.
- Abiapuntuko materialarekin koherenteak diren espazio eszeniko-eszenografikoak proposatu eta garatzen ditu.
- Proposamen originalak egin eta planteatzen ditu, esanahi eszenikoa duten askotariko kodeei erreparatuta.

**Criterios específicos de valoración**

- Conoce y profundiza en la acción dramática de los personajes, sus conflictos y sus situaciones.
- Conoce y aplica los diferentes instrumentos y técnicas interpretativas que el intérprete tiene a su disposición para la creación de personajes.
- Propone y desarrolla espacios escénicos-escenográficos coherentes con el material de partida.
- Realiza y plantea propuestas originales atendiendo a los diferentes códigos de significación escénica.

| **1. ariketa (3 puntu)** | **1$^{er}$ ejercicio (3 puntos)** |
|---|---|
| – BERNARDA: *(NESKAMEARI)* Isilik!<br>– NESKAMEA: *(Negarrez)* Bernarda!<br>– BERNARDA: Zarata gutxiago eta lan gehiago. Askoz garbiago izan behar zenuen hau guztia segiziokoak etxean hartzeko. Alde hemendik. Ez da hau zure lekua. *(NESKAMEA negarrez doa).* Pobreak animaliak bezalakoak dira; beste substantzia batzuekin eginda baleude bezala.<br><br>Horiek dira Bernarda Albaren lehen hitzak, Federico García Lorcaren obran; eta egoera eta gatazka bat agertzen digute. Hitz horietatik abiatuta, idatzi, 15 lerrotan gehienez, Bernarda pertsonaiaren barne-bakarrizketa: nahiz eta hitzez obran adierazi ez, zer pentsamendu pasatzen ari zaizkio Bernardari burutik, egoera horretan? | – BERNARDA: *(A la CRIADA.)* ¡Silencio!<br>– CRIADA: *(Llorando.)* ¡Bernarda!<br>– BERNARDA: Menos gritos y más obras. Debías haber procurado que todo esto estuviera más limpio para recibir al duelo. Vete. No es este tu lugar. *(La CRIADA se va llorando.)* Los pobres son como los animales; parece como si estuvieran hechos de otras sustancias.<br><br>Estas son las primeras palabras que Bernarda Alba pronuncia en la obra de Federico García Lorca y que nos muestran una situación y un conflicto. Partiendo de ellas, escribe, en un máximo de 15 líneas, el monólogo interior del personaje de Bernarda: ¿qué pensamientos están pasando por la mente de Bernarda en la situación que está viviendo y no verbaliza en la obra? |

| **2. ariketa (3 puntu)** | **2º ejercicio (3 puntos)** |
|---|---|
| Imajinatu *Bernarda Albaren etxea* obra zuzendu behar duzula. Azaldu zer ohar eta jarraibide emango zenizkiokeen Bernardaren papera interpretatuko duen aktoreari, pertsonaia alde fisikoan zein psikologikoan eraikitzeko. | Imagina que tuvieras la responsabilidad de dirigir la obra *La casa de Bernarda Alba*. Explica qué indicaciones darías a la actriz que interpretará el papel de Bernarda para construir su personaje, tanto a nivel físico como psicológico. |

| **3. ariketa (2 puntu)** | **3$^{er}$ ejercicio (2 puntos)** |
|---|---|
| *BERNARDAren etxe barruko gela zuri-zuria. Horma sendoak. Arku formako ateak, jutezko gortinekin, borlatxoz eta parpailez errematatuak. Lezkazko aulkia. Ninfak edo kondaira-erregeak paisaia sinesgaitzetan erakusten dituzten koadroak. Uda da. Isiltasun itzaltsu bat nagusi da eszenan. Oihala altxatzean, hutsik dago eszena. Kanpaiak joka entzuten dira.*<br><br>Sortu, garatu eta azaldu proposamen eszenografiko bat, Federico García Lorcak *Bernarda Albaren etxea* lanaren hasieran egiten duen oharretik abiatuta. | *Habitación blanquísima del interior de la casa de BERNARDA. Muros gruesos. Puertas en arco con cortinas de yute rematadas con madroños y volantes. Silla de anea. Cuadros con paisajes inverosímiles de ninfas o reyes de leyenda. Es verano. Un gran silencio umbroso se extiende por la escena. Al levantarse el telón está la escena sola. Se oyen doblar las campanas.*<br><br>Realiza, desarrolla y explica una propuesta escenográfica partiendo de la acotación inicial que propone Federico García Lorca en el inicio de *La casa de Bernarda Alba.* |

| **4. ariketa (2 puntu)** | **4º ejercicio (2 puntos)** |
|---|---|
| *Bernarda Albaren etxea* antzezlana aintzat hartuta, idatzi nola landuko zenituzkeen esanahi eszenikoa duten kodeak (jantziak, soinu-espazioa -musika eta soinu-efektuak-, argiztapena...) balizko eszenifikazio-proposamen pertsonal bat egiteko. | Continuando con *La casa de Bernarda Alba,* escribe sobre los diferentes códigos de significación escénica: vestuario, espacio sonoro (música y efectos sonoros), iluminación... de cara a realizar una posible propuesta de escenificación personal. |